



# GAUEKOAK

musika, tailerrak, sormena, kirol jarduerak...  
música, talleres, creación, deportes...

## 2021 UDABERRIA-UDA PRIMAVERA-VERANO



Izen ematea: [vitoria-gasteiz.org/gauekoak](http://vitoria-gasteiz.org/gauekoak) edo Tel.: 010  
OTSAILAren 22tik aurrera, lekuak bete arte.

Inscripciones: [vitoria-gasteiz.org/gauekoak](http://vitoria-gasteiz.org/gauekoak) o Tel.: 010  
A partir del 22 de FEBRERO, hasta completar plazas.

Babesleak/Patrocinan:



Laguntzaileak/Colaboran:



'Gauekoak' programak udaberri-udako denboraldi honetan aisialdirako gune alternatibo, sortzaile, parte-hartzaile eta osasungarriak sortzeko helburuarekin aurkezten dugu. Hainbat arlotako lanketa espazioak sortzen, tokiko kultura-nortasuna indartzen eta gazteen parte-hartzerako tresnak emanez.

Udaberri-udako egitarauan, hainbat diziplina barne hartzen dituzten jarduerak planteatzen saiatu gara, horietako askok Gasteizko artista edo hezitzaileekin. Iris Audiovisual, Oihaneder Euskararen Etxea edo SAMA (Arabako Ikus Entzunezkoen Elkarte) bezalako elkarteekin esate baterako. Horrela, kultur interesak bultzatzeko gune bat sortu nahi dugu, herritar gazteenen eta erakundeen arteko lankidetzak bultzatuz.

Doako aisialdiko eredu alternatibo bat defendatzen dugu, berrikuntza, tokiko kultura eta artistak babestea eta hiriko gazteria osatzen duten kolektibo guztiak barne hartzea abiapuntu izango dituen.

Tailerak, musika, kirola eta sorkuntza uztartzen dituen programazio berritzailea proposatzen dugu.

Jardueren hezitzaileak aukeratzea funtsezko puntua izan da jardueren garapenerako eta kalitaterako. Hainbat esparrutako erreferenteak izango ditugu, hala nola, Eider Iturriaga, Berri Txarrak taldeko argazkilaria, argazkigintza tailerrean edo Javi Sevilla, Black Cat Studio-ko ekoizle gasteiztarra, ekoizpen eta grabaketa tailerrean.

Musikari dagokionez, nabarmentzekoa da SAMA-rekin lankidetzan prestatutako formatu txikiko kontzertu akustikoak. Musika-emanaldiak abiapuntu izanik, eztabaida eta elkarrizketa kulturala bultzatu nahi dira, mahai-inguru, hitzaldi edo eztabaidekin lagunduta.

Gainera, denboraldi honetan Gasteiz Hip Hop Elkartearekin elkarlanean arituko gara hiriko hainbat rap artisten kontzertuak antolatzen.

Sorkuntza proposamenak ere ez dira atzean geratu, *BATERA kultur proiektuak elkarrekin proiektuak* martxan jartzeko deialdia Oihaneder Euskararen Etxearekin elkarlanean antolatu da, eta gazteen artean aisialdian euskararen erabilera sustatzeko apustua ere bada.

Ez dugu zinema ahazten, Iris Audiovisual elkarteak bultzatutako 'Udagora' jaialdiaren bigarren edizioarekin, gazteek ekoiztutako zinemaren azken joerez gozatzeko aukera izango baitugu. Iñigo Cobo zuzendariaren "Anti-todo" film dokumentala proiektatuko da, 80ko hamarkadan hazitako belaunaldien eta 2000ko hamarkadan hazitako belaunaldien arteko elkarrizketa ezartzen duena.

Azkenik, kirol jarduerari dagokienez, orientazio jarduera-multzo bat proposatzen dugu, Urbasako Parke Naturala bezalako ingurune natural batean oinarritako ezagutzak bereganatuz.

## 1. Musika jarduerak

### - **Aurkezpen kontzertuak - Jimmy Jazz 03.05**

Gauekoaken udaberri-udarako egitaraua aurkezteko jaialdia, Gasteiz Hip Hop dinamikarekin elkarlanean antolatua. Gasteizko bi taldek osatuko dute kartela, eta egitaraua ezagutarazteko balioko du.

**Melophilia:** Lmike eta Lhuna MC-ak eta Naiz DJak osatutako taldea. Elkarrekin rapari buruzko une eta hitzaldiak partekatuz, 2018an Melophilia proiektuari bizia ematea erabaki zuten. *Bolifaceticos* albumetan ikus daitekeen bezala, musika estilo ezberdinen eraginpean sortu zen taldea, bere letrekin mezu garbi eta erreal bat transmititzeko helburuarekin.

**X eta Javidier:** 2020.urtean jaiotako proiektua. Taldeko X eta Javidier kideek, 2017tik ezagutzen zuten elkar Mike L & Javi D taldearen zuzenekoetan parte hartzen zutelarik. Iaz, musika-proiektu berri bati forma ematea erabaki zuten, eta hilabete honetan bertan argitaratuko dute beren lehen lana.

### - **Aldare - Baratza Aretoa 06.25**

Zuzeneko musika eta pintura-ikuskizuna. Drone izeneko musika alternatiboaren generoa eta artista bisualak kristautasunaren aurreko garaietan erabilitako teknika eta material zaharrak konbinatzen dituen. Ikuskizunaren gai nagusia euskal mitologia izango da, AMALURRA, ORTZI, MARI, SUGAR, ILARGI eta EGUZKIK osatutako sei entitatearen panteoi nagusia.

## 2. Abentura jarduerak

### - **'Galtzagorrien bila' - Urbasa 05.29**

Urbasa mendilerroan jardunaldi bat egitea proposatzen da. Hori guztia iparrorratza, mapa, gps eta lurraren irakurketaren bidez Urbasako pagadietan zehar galtzagorriak, euskal izaki mitologikoak, bilatzeko abenturarekin.

## 3. Sormen jarduerak

### - **Argazkilaritza tailerra**

- **Lehenengo zatia: Aldabe GE 03.06**

- **Bigarren zatia: Aldabe GE 03.13**

Argazkigintzara bideratutako tailerra, bi jardunalditan banatuta. Eider Iturriagak (baga Biga, Gatibu, Berri Txarrak) emango du ikastaroa, eta lehen egunean ikasiko ditugu argazkigintzaren oinarri teknika baita argazkilariairen begiaren eta enkoadorearen garrantzia. Tailerraren bigarren egunean, argazkigintza musikaren edizio teknika ikasiko ditugu.

- **El cinecito - SAMA (Sociedad Alavesa Medios Audiovisuales)**

- I. Jardunaldia 03.26

- II. Jardunaldia 05.21

- III. Jardunaldia 06.18

SAMA (Arabako Ikus Entzunezkoen Elkarte) Elkartearekin batera El Cinecito izeneko gunean egingo diren jarduerak. Gasteizko Seminarioan kokatuta, elkarteak proiektzioak, hitzaldiak, etab. egiteko gune bat sortu du. Asmoa kultur jardunaldiak antolatzea da, hala nola mahai-inguruak, eztabaidak eta abar, euskarazko kontzertu akustikoekin batera.

- **Ta y tantxs - Aldabe GE 03.27**

Feminismo interseksionalari buruzko jardunaldia. Jardunaldi teoriko-praktikoa, hogeita hamar minutuko zazpi hitzaldiz osatua. Hitzaldien helburua feminismo interseksionala hainbat esparrutatik jorratzea da. Hitzaldi bakoitza bere arloan espezializatutako profesional baten ardurapean egongo da. Horien artean Iratxe Gil (psikologa eta sexologa, Espacio de Desaprendizaje Elkarte), Enara Iruretagoiena (ziklo menstrual eta ekonomia feministan aditua) edo Eider Albeniz (nutrizionista, osasunaren dibulgazioan aditua).

- **'Irakurketa erraza' kluba - Aldabe GE Apirilak 16, 23 eta 30 Maiatzak 7, 14, 21 eta 28 eta Ekainak 4.**

Proposamen honek aisialdi inklusiboa, sortzailea eta parte-hartzailea sustatu nahi du, irakurketaren eta istorioak partekatzeko eta eraikitzeko grinaren bidez. Irakurketa sustatzeko eta harreman pertsonalerako espazioak sortzeko helburua du. **Agua del Rif** liburuarekin hasiko gara. Parte hartu eta zatoz istorioak taldean partekatzera!

\* Erabilitako liburuek IFLAren (Liburutegi Elkarten eta Erakundeen Nazioarteko Federazioa) jarraibideak beteko dituzte, edukiari, hizkuntzari eta formari dagokienez.

- **Cubase tailerra**

- **Lehenengo zatia: Aldabe GE 04.17**

- **Bigarren zatia: Aldabe GE 04.24**

Javi Sevillak (Black Cat Studio) ekoizpen eta grabazio digitalari buruzko bi jardunaldiz osatutako tailerra. Kubase programan autoprodukziorako oinarritzko parametroak irakatsiko dira.

- **Tote Bag Poltsa Birziklatuak - Madd Moda Tailerra, Eskola Kalea 04.24**

Proiektuan zehar parte hartzaile bakoitzak *tote bag* (poltsa) bat egingo du material birziklatuak erabiliz, *jean* oihalezko jantziak bereziki. Horretarako, moda birziklapena eta joskintza ezagutuko eta praktikan jarriko ditugu. Hasteko, *upcyclingaren* jatorria ezagutuko dugu eta hainbat adibideren bitartez parte hartzaileak motibatuko ditugu eta egin dezaketenaren inguruan ideiak helaraziko dizkiegu.

- **Ogi tailerra - Zabalgana GE 05.08**

Ama ore ogia egiteko tailerra. Prozesu osoari jarraituz ama ore ogia egiten irakastea helburu duena: hartzidura (ama ore), oratzea, lehen hartzidura, formazio mota desberdinak, bigarren hartzidura eta laberatzea.

- **Udagora Fest II. edizioa - Villasuso Jauregia 05.15**

Iñigo Cobo zuzendariaren "Anti-todo" film dokumentala proiektatuko da, 80ko hamarkadan hazitako belaunaldien eta 2000ko hamarkadan hazitako belaunaldien arteko elkarriketa ezartzen duena.

- **Sukaldaritza beganoa - 06.03 Salburua GE**

Sukaldaritza beganoa praktikan jartzeko tailerra. Gasteizko *BeganBai* jatexeko begano mitikoaren eskutik, sukaldaritza beganoa ezagutu eta bertako produktu ekologikoak eta km0 produktuak erabiliz, plater orekatu eta energiko bat sukaldatuko dugu.

- **Bertako artisten azoka - Falerina 06.19**

Bertako artistek beren lanak erakusteko aukera izango dute merkatu honetan. Horrela, hiriko gazteen artean ezagutaraztea lortzeaz gain, haien arteko laguntza eta lankidetzak sortuko dira.

- **Swing Tailerra - Landatxo GE 07.02**

Dantza gustuko baduzu, ezin duzu Jungle Beat taldeak eskaintzen duen Swing dantza tailer hau galdu. Inoiz ez bazara Swing dantzatzera animatu, hau da zure momentua! Musikaren erritmo itsaskorra eta lind hop-aren aldaketa mugimenduak izango dira protagonista dantza hastapen tailer honetan. Bazatuz?

- **In Situ Art Festival**

Gasteizko tokiko saltokien erakusleihoetan esku hartzeko eta saltoki horien, tokiko artisten eta herritarren artean sinergiak sortzeko deialdia. Proiektu honen bidez, kontsumitzearen eta tokiko merkataritzaren kontsumitzearen garrantzia azpimarratu nahi da, bertako merkataritza eta sorkuntza artistikoan aritzen diren pertsonak ahaldunduz.

- **BATERA Kultur proiektuak elkarrekin**

Oihaneder Euskararen Etxearekin elkarlanean antolatutako ekintza. Euskal Herriko 16-30 urte bitarteko edozein gazte euskalduni zuzendutako deialdia da. Gazteen artean euskaraz garatutako kultur proiektuei bultzada ematea du helburu. Dagoeneko hiru proiektu aukeratu dira: *Larrugorritan*, *Poliedroa Vol I* eta *Loa, loa laguna*. Proposamenen egileek datozen asteetan crowdfunding proiektuak prestatu beharko dituzte, eta ondoren 40 eguneko epea izango dute beren helburuak lortzeko. ¿Lagunduko?

## ***Aisia eta sormena: kultura, elkarbizitza, feminismoa***

<b><i>Zer?</i></b>	<b><i>Non?</i></b>	<b><i>Data</i></b>	<b><i>Ordua</i></b>	<b><i>Hizkuntza</i></b>	<b><i>Izen-ematea</i></b>
<b>Argazkilaritza tailerra</b>	Aldabe GE	Martxoak 6 eta 13	10:00-14:00	Euskera	Online eta gizarte etxeetan
<b>EL CINECITO</b>	SAMA (Seminario)	Martxoak 26	18:00-21:00	Euskera	Entradium.com
<b>Ta y tantxs</b>	Aldabe GE	Martxoak 27	11:00-19:00	Gaztelania	Online eta gizarte etxeetan
<b>Irakurketa erraza kluba</b>	Aldabe GE	Apirilak 16, 23 eta 30 Maiatzak 7, 14, 21 eta 28 eta Ekainak 4.	18:00 - 19:30	Gaztelania	Online eta gizarte etxeetan
<b>Cubase tailerra</b>	Aldabe GE	Apirilak 17 eta 24	10:00-14:00	Gaztelania	Online eta gizarte etxeetan
<b>Tote Bag birziklatuak</b>	Eskola Kalea 10	Apirilak 24	10:00-18.00	Euskera	Online eta gizarte etxeetan
<b>Ogi tailerra</b>	Zabalgana GE	Maiatzak 8	10:00-19:00	Gaztelania	Online eta gizarte etxeetan
<b>Udagora Fest II.edizioa</b>	Villasuso Jauregia	Maiatzak 15	17:00-21:00	Gaztelania	Entradium.com
<b>EL CINECITO</b>	SAMA (Seminario)	Maiatzak 21	18:00-21:00	Euskera	Entradium.com
<b>Sukaldaritza beganoa</b>	Salburua GE	Ekainak 3	17:30-21:00	Gaztelania	Online eta gizarte etxeetan
<b>InSitu Art Festival: Inaugurazioa</b>	Alde Zaharra	Ekainak 4	18:00	Gaztelania	Entradium.com
<b>Bertako artisten azoka</b>	Falerina	Ekainak 19	11:00 - 20:00	Elebiduna	Entradium.com
<b>InSitu Art Festival: Bisita gidatua</b>	Alde Zaharra	Ekainak 19	12:00	Gaztelania	Entradium.com
<b>EL CINECITO</b>	SAMA (Seminario)	Ekainak 25	18:00-21:00	Euskera	Entradium.com
<b>InSitu Art Festival: Sari Banaketa</b>	Oihaneder Ortuño Aretoa	Uztailak 2	19:00	Gaztelania	Entradium.com
<b>Swing tailerra</b>	Landatxo GE	Uztailak 2	10:00 - 14:00	Euskera	Online eta gizarte etxeetan

## ***Musika***

---

<b><i>Zer?</i></b>	<b><i>Non?</i></b>	<b><i>Data</i></b>	<b><i>Ordua</i></b>	<b><i>Sarrerak</i></b>
<b>Aurkezpen Jaialdia</b>	Jimmy Jazz	Martxoak 5	18:00	Entradium.com
<b>ALDARE</b>	Baratza Aretoa	Ekainak 25	19:00	Entradium.com

## ***Abentura***

---

<b><i>Zer?</i></b>	<b><i>Non?</i></b>	<b><i>Data</i></b>	<b><i>Ordua</i></b>	<b><i>Hizkuntza</i></b>	<b><i>Izen-ematea</i></b>
<b>'Galtzagorrie n bila'</b>	Urbasa	Maiatzak 29	09:00-20:00	Euskera	Online eta gizarte etxeetan